**KULTURA** AIRE LIBREKO ZINE EMANALDIAK GAUR HASIKO DIRA

**GEHIGARRIA** MARITXU LOIOLARI ELKARRIZKETA • **KIROLA** SAN MIGELGO RALLYSPRINT-A


# BaRRen

ASTEKARIA

ELGOIBARKO ASTEKARIA · 2004ko uztailaren 2a/XII. urtea/495. zkia




SANTIAGOKO BIDEA BIZIKLETAN

## Gurpil gaineko erromesak

TEMPUR · Dunlopillo · laxy · Mediterráneo · MOVIFLEX

Zure logela aukeratzerakoan altzaria ez da garrantzitsuena. Koltxoi egoki bat aukeratu.

**Gure erakusketa bisita ezazu!**

## TEMPUR

PRESIOA ARINTZEN DUTEN KOLTXOI ETA BURKOAK



**15 URTEKO BERMEA**



TEMPUR koltxoi eta burkoak gorputzaren formara egokitzen dira beharrezko lekuetan ezinbesteko sostengua eskainiz.

## Dunlopillo





Dunlopillo-ren Talalay latexeko betegarriarekin ez duzu ohean izerdituko. Koltxoiaren fabrikazioan gorputzaren hezetasuna mantentzen laguntzen duten materialak soilik erabiltzen ditugu.

**10 URTEKO BERMEA**

%50 BERO GUTXIAGO EMATEN DU

## laxy



**5 URTEKO BERMEA**

funda aldagarria
30° tan garbikorra





Latexeko xafla bi aurpegietan.
5 dentsitate ezberdinekin.
Akaroen, onddoen eta bakterien kontrako
Maestersan tratamendua kanpoko zorroan.

# LAGUNAK

12 hilabetetan ordaindu dezakezu

San Roke kalea, 20 - Tel: 943 74 44 57 - ELGOIBAR

www.textillagunak.com

asteko notizia



## Kea

Erruleta-jokoaren antza du honek. Diputazioak Gipuzkoan errauste-planta eraikitzeko asmoa zuela adierazi eta berehala hasi zen kokaleku posibleen izenen dantza. Debabarrena ere aipatu zuten hasiera batean, eta beldurtu egin nintzen. Orain badirudi Donostia inguruari tokatuko zaiola "loteria ". Han ere asko eta asko beldurrez egongo da. Agintariek diote teknologia segurua dutela gaur egungo errauste-plantek, baina mediku eta osasun arloko Gipuzkoako 500 profesional inguruk osasunerako benetan arriskutsuak direla ziurtatu dute...

Errauste-plantek hondakinen bolumena txikiagotu eta energia sortzen dute, baina trukean, filtroak filtro, kearekin batera CO2, metal toxikoak eta dioxinak aireratzen dituzte. Gainera, erretako hondakinentzako zabortegiak behar izaten dira. Errauste-plantak horren seguruak baldin badira, zergatik haserretu da hainbeste Odon Elortza Donostia inguruan jartzeko aukera aipatu denean?

Jendeari galdetu gabe erabaki dute planta eraikitzea. Eta inori galdetu gabe erabakiko dute non jarri: mankomunitateek tokia bozkatuko dute, eta ados jarri dira erabakitakoari inork betorik ez jartzeko. Ez dago oposiziorik.

Hondakinak arazo dira, eta konponbidea behar dute, bai. Baina lehen zaborrak "gutxitu, berrerabili eta birziklatu " zen lema. Eta orain? Errauste-plantak errentagarriak izateko zaborra erre behar dute, ez zaie birziklapena bultzatzerik komeni...

**Montse Arregi**



## Irakaslegoarean euskalduntze prozesua dela eta

Euskal Hezkuntza Sisteman egonkortasuna bukatzen zaien 1500 irakasle bitarteko daude. Hauetatik 183k ezin izan dute Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak ezinbestez eskatzen dien hizkuntza eskakizuna bete. 39 irakaslek deialdi guztiak agortu eta gero ezin izango dute aukera gehiagotaz gozatu; 80k, behin eta berriz saiatu arren, ezin izan dute dagokien perfila egiaztatu, nahiz eta oraindik ere denbora duten beharrak gauzatzeko. 64 irakasle, ordea, 1988az geroztik ez dira agertu ere egin egiaztatze frogetara.

Datu guztiak ere nahiko kezkagarriak dira. Kopuru hotzari bagagozkio %12a baino ez dela ikus dezakegu. Hala ere, hainbat kasutan intentzionalitatea dagoela dirudi. Ez noa ni Irale -irakaslegoaren euskalduntze programa- ondo ala gaizki diseinatua eta burutua dagoen epaitzera. Ziur aski, izango ditu leundu beharreko ertzak, baina ebaluazio metodoak metodo zelatan jartzen naute hainbat irakasleren jokabideak. Duela aste batzuk orri bikoitz beteko erreportaje bat irakurtzeko aukera izan nuen egunkari batean. Bertan hiruzpalau irakasleren hitzak isladatzen zituzten, hain zuzen ere hizkuntza eskakizuna egiaztatu ezin izan duten irakasleen hitzak.

Aipatu artikulua irakurri ostean gauza bi etorri zitzaizkidan burura: alde batetik, konfiantza larregi izan dutela, irakaskuntzan zeramaten urteetaz baliatuz finkotasuna bide horretatik lortuko zutela uste izan baitute. Bestalde, ez direla inola ere irakaslego corpusean dauden euskaltzalerik amorratuenak. Badakit oso azaleko analisia dela. Baina ezin dezaket sinistu irakaskuntzan diharduen pertsona bat (Lengua y Literatura ematen duena esaterako) ez dela instrumentalki erabili behar duen beste hizkuntza bat ikasteko gai. Eta hitz erdirik ere ez dut esan nahi azken 16 urteetan egiaztatze froga batera ere aurkeztu ez den irakasleaz. Jakitun al da bere utzikeriak dirutan izan duen kostuaz?

**Gotzon Arrieta**

Atal hauek ez dira BARRENen editorialak. Urtero 10 lagun inguru aukeratzen dira eta txandan-txandan idazten dute. Kolaboratzaileen aukeraketa egiterakoan, besteak-beste, pluraltasuna izaten dugu kontuan. Gaiari dagokionean, berriz, kolaboratzaile bakoitzak nahi duena aukeratzen du.

Kexak ........ 5
motz Motz ........ 8
gehigarria ........ 13
kiRolAk ........ 20

2004-VII-2

# Urruzunoren
## begi ezkutua



### Eraztun bat

Eraztun bat topatu zuen kalean, ezustean, botata. Baina berak, botata baino, berarentzat norbaitek utzitako eraztuna zela pentsatu zuen. Eta aurrerantzean han ibili zen, eraztun hura zein atzamarretan sartuko ote zuen imajinatzen. Edonon ikusten zuen edozein izan zitekeen eraztunaren jabea. Eta nola hurreratu, eraztun hura janzteko nola esan pentsatzen ematen zituen segundoak. Hamahiru egun ere pasa ziren. Eta eraztunak ez zeukan jaberik. Bere eskuetan urrea urtzen hasiko ote zen beldur zen. Edo, urrea izan gabe, burdin zati hura uhertzen hasiko ote zen. Desesperaturik, espaloian berarekin gurutzatu zen lehenengo pertsonari eman zion eraztuna eskura. Eta alde egin zuen, antxintxika, hura bere printze edo printzesa izan zitekeen jakiteko denborarik hartu gabe. Une hartan, eraztuna eman zuen une berean jakin baitzuen hainbeste desiratzen diren gauzak berehala usteltzen direla normalean. Eta eraztun hura denbora gehiegi izan zuen bere eskuan. Itxia. Lotua.

Eraztunak jabe berria zeukan. Alde batera eta bestera, jendearen begietara begira hasi zen. Eta Atzamarretara.

**Jasone Osoro**

## BARRENEKO ESKUTITZEI BURUZKO ARAUDIA

BARRENen edozein gutun argitaratu ahal izateko, honako baldintza hauek bete beharko ditu nahi eta nahiez:

1. Euskutitz guztiek identifikatuta egon behar dute: izen-abizenak, telefono zenbakia eta NAN zenbakia, derrigorrezkoak dira.

2. Eskutitzak izen-abizenekin argitaratuko dira. Egilea talde bat denean, edo talde baten ordezkaria, talde-izena onartuko da. Ez dira “kuadrila bat”, “gazte bat” edo “irakasle bat” bezalako formulak onartuko. Ezizenarekin ere ezingo dira gutunak sinatu. Alabaina, onartu egingo ditugu identifikagarriak diren taldeak.

3. Eskutitzaren LUZERAri dagokionean, 25 lerro artekoek izango dute lehentasuna. Hortik gorakorik balego (35 lerrotik gorakorik ez da onartuko) lekua dagoenean bakarrik argitaratuko dugu.

4. Eskutitzak erredakziora iristen diren ordenean argitaratuko dira. Halere, gutunetako gaien gaurkotasunaren mesedetan, ordena aldatzeko aukera izango da. Lekurik ez dagoen kasuetan, gaurkotasunak lehentasuna izango du.

5. BARRENeko gutunetan ez dira onartuko:

. Biraoak

. Gutun iraingarriak eta errespetu faltaz idatzitakoak

. Pertsona eta erakundeei zuzendutako mehatxuak

. …

6. Eskutitzetan ager daitezkeen akatsak zuzendu egingo ditugu (ortografikoak, gramatikalak eta abar). Halaber, izenburrik gabe datozen eskutitzei geuk ipiniko diegu.

***OHARRA: Arautegi honetan jasota ez dagoen kasuren bat izanez gero, BARRENeko zuzendaritzak izango du erabakia hartzeko ardura.***

BARRENek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzeak ondo identifikatuta egon behar dira argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: **izen-abizenak, NAN** eta **telefono zkia.**

ASTEKARIA
BARREN

Nafarroa enparantza, 2
20870 ELGOIBAR
☎ 943 74 41 12
Publizitatea:
☎ 943 74 37 04
Faxa: 943 74 37 04
E-posta:
barren@topagunea.com
Helbide informatikoa:
www.topagunea.com/barren
ARGITARATZAILEA
Elgoibarko Izarra

LAGUNTZAILEA Elgoibarko Udala KOORDINATZAILEA Ainhoa Andonegii ZUZENDARIA Asier Orbea GEHIGARRIEN ARDURADUNA Maite Uriarte PUBLIZITATEA Amaia Erkizia MAKETATZAILEA Jaione Unanue GERENTZIA Jon Peli Uriguen KOLABORATZAILEAK Jasone Osoro, Ainhoa Lodoso, Nestor Fuente, Pello Mendizabal, Edurne Bilbao, Gotzon Arrieta, Lorea Perez de Albeniz, Jokin Martinez, Montse Arregi, Juanito Gorostiza, Kokoe K.E. eta Urruzuno L.T.. AZALEKO ESAERA ZAHARRA Gotzon Garateren liburutik INPRIMATEGIA Gertu Koop. E. TIRADA 4.175 ale LEGE GORDAILUA SS-1.038/92 ISSN 1139-1855

*Elgoibarko Udalak, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak eta Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria.*

kutxa
DANOBAT
GOITI
ESTARTA

## KEXAK

◆ **Trenez asko ibiltzen den emakume batek esan digu, greba egitea ondo dagoela, baina ondo adierazi beharko luketela zein egunetan egiten duten**: "Gauzak ez badaude ondo, eta greba egin behar badute, egin dezatela, baina adierazi dezatela zein egunetan egingo duten. Larunbatean, Debara joateko trena hartzera joan nintzenean, egun horretan greba zegoela esan zidaten. Mesedez, gauzak aurrez azaldu, bestela, inongo kulparik ez daukagun erabiltzaileak gara kaltetuenak".



◆ **Baserritar batek esan digunez, Correos-eko korrespondentzia astean bi aldiz iristen zaio, eta hiru aldiz iristea gustatuko litzaioke**: "Astean bi aldiz iristen zaigu korrespondentzia, eta lehengora bueltatzea gustatuko litzaiguke, hau da, astean hiru aldiz jasotzera. Bestela, gutunak pilatu egiten dira, eta denak batera jasotzen ditugu".

## GALDERAK



◆ Neska koadrila batek ondorengo galdera egin digu: **Noiz jarri behar dute Madalako parke berria?** Udaleko Hirigintza Sailarekin hitz egin dugu, eta esan digutenez, irailera arte ez omen dute jarriko. Orain uda dator, eta oporren ostean hasiko dira lanean. Hirigintzakoek azaldu digutenez, herriko parke gehienak berritzeko asmoa daukate, eta horregatik atzeratu omen dira Madalako parkeko obrak.

## TXALOAK

◆ Herritar batzuk, **Kimetz Elkartea txalotu nahi dute, Nahaste Borraste antolatzeagatik:** "ez da marka makala! 25. urteurrena! Lasterketa benetan polita izaten da, oso gustura ikusten dugu. Zorionak eta jarraitu horrela!"



Barrak, Birrak eta Barreak



# Santiagoko Bidea

*2004a Xacobeo urtea da eta Santiagoko Bidea egingo duten erromesak mordo bat izango dira. Hainbat buru hainbat aburu dio esaerak eta bidea egiteko arrazoiak ere halaxe dira, bakoitzak berea du, alegia. Gure erreportajeko 17 urteko lau gazteek ez daukate erromes itxura handirik, baina 4 hilabeteko oporraldi luzea izanik, bizikletak hartu eta Frantsesen bidetik egin dute Santiagoko Bidea. Antton Alberdi, Joanes Rodriguez, Ion Sanchez eta Jokin Zubiaurre dira gure protagonisten izenak.*

## Santiagoko Bidea 13 egunetan

Ekainaren 7an abiatu ziren Orreagatik eta 19an iritsi ziren Compostelara. Ia 800 kilometro egin dituzte 13 egunetan. "Aspalditik genuen antzerako zerbait egiteko asmoa eta garrantzitsuena bageneukan, astia eta mugitzeko gogoa, alegia".

Lehen oztopo edo lana etxekoak konbentzitzea izan zen, gazteak baitira oraindik bakarrik joateko. Hasierako asmoa beraietako baten aita furgoneta batean aurretik joatea zen, baina azkenean behar zuten guztia zakutoetan sartu eta beraien kabuz moldatzea erabaki zuten.

## Lehen egun intentsua

Lehen egunean abentura eta kalentura asko bizi zituztela aipatu digute, "guztia berria zen guretzat eta denetarik pasa zitzaigun: bizikletan hasi eta 10 metrora Jokin jauzi egin zen, 100 metrora kalapie bat soltatu zitzaigun, gero beste bat, eta handik gutxira Anttonek zulatua izan zuen gurpilean. Hau gutxi balitz Jokin eta Joanes erdi gaixorik zeuden". Joanesek gerora anginak eduki zituen eta ospitaletik ere pasa behar izan zuen, baina ez zuen amore eman eta bidean jarraitu zuen. Lehen gauean gainera, kanpinean lo egin behar izan zuten ardiz inguratuta. Zorionez hurrengo egunetan ez zuten inolako arazorik edo aipatzeko moduko ezbeharrik izan.



## Bizikletaren abantailak eta desabantailak

Bizikletak eguneko 50 edo 60 kilometro egiteko aukera eskaintzen zien."Gauzak ikusi edo turismo pixka bat egiteko aukera ere ematen du, lekuetara ez baita oinez bezain nekatuta iristen. Horrez gain, Gaztela Leoneko lautada amaigabeak eta aspergarriak azkarrago pasa daitezke eta zer esanik ez bidea aldapa behera denean!". Desabantailak ere baditu, ordea, aterpetxeetan oinezkoek lehentasuna baitute lekurik ezean. "Pare bat aldiz hurrengo herriko aterpetxera joan behar izan genuen lo egiteko lekua topatzera. Bestalde, oinez doazenek elkarrekin erlazionatzeko aukera gehiago dute".

## Gazte gutxi

Beraien harridurarako gazte gutxi aurkitu dituzte bidean, "gu moduko jende gazte gehiago ikustea espero genuen, baina erromes gazte oso gutxirekin egin dugu topo, gehienak 30 urtetik gorakoak baitziren eta jende edadetu asko".



## Zatirik zailena

Bidea aldapa gora jarri denean izan dituzte zailtasun gehien. Laurek dituzte gogoan Galizian sartu eta berehala La Cruz de Ferro mendatea igotzen botatako izerdiak. "Gora ailegatu eta jubilatuen hiru autobus zauden bertan. Nekearekin eta beroarekin nahikoa ez eta amamek adarra jo ziguten gainetik, "tan jovenes y tan fatigados…".

## Eguneroko errutina

"Goizeko 6:00etan jaikitzen ginen freskura aprobetxatzeko. 11:00etarako eguzkia gogor jotzen hasten zen. Goiz batzuetan 7 gradura arte jaisten zen hozberoa eta eguerdian 30etik gora igo. Zorionez azken egunera arte ez digu euririk egin. Lehen egunean 8:00etan jaiki ginen eta zerbait arraroa sumatu genuen, azkenak baikinen. Horrela ikasten da. Dena dela, gauzak lasai hartu ditugu, prisarik gabe".

## Jan, edan eta atseden hartu

Bizikletan bidaiatzean ondo jan, edan eta atseden hartzeak garrantzi itzela duela ikasi dute. "Hasieran bokadiloak janez

# BIZIKLETAN




pasako ginela uste genuen, baina usteak erdi ustel, izugarrizko gosearekin iristen baikinen. Aurrekontutik ere pasa egin gara zertxobait, baina kapritxoetan ez dogu ezer gastatu. Esaterako, herriko jatetxerik pijoenean sartu ginen behin eta 18 euroko menua zuten. Aurrekontutik ateratzen zenez, lau menu infantil eskatu genituen. 20 urteko jaun batzuei 8 urtekoentzako menua ezin zigutela atera erantzun ziguten eta azkenean erdi bideko bat atera ziguten".



## Negozioa

Santiagoko Bidearen inguruan eraikia dagoen negozioak ere atentzioa deitu die, "Tokirik arraroenetan aurkitu ditzakezu freskagarrien makinak. Aterpetxeen aurrean diskotekak ere ikusi ditugu erdi hilak ziruditen herrietan. Behin eliza batetara sartu eta 3 euro ere eskatu zizkiguten".

## Erromes bitxiak

Erromes bitxi asko ikusi dituzte bidean, "zoro antzerako asko ere bai, zerura begiratu eta kantuan edo deiadarka jainkoari eskerrak ematen hasten zirenak, etab." Bartzelonako erromes itxu batekin ere txundituta geratu ziren, "autobia batean sartzeko zorian aurkitu genuen eta bideak nondik jarraitzen zuen ba al genekien galdetu zigun, norabidea azalduz erantzun genion itsua zenik konturatu gabe, nahiz eta txakurra, makulua eta betaurreko beltzak jantzita zihoan". Leku guztietako erromesekin egin dute topo: frantses asko, uruguaiarrak, mexikarrak, italiarrak, estatubatuarrak, alemaniarrak, australiarrak, e.a.

"Aterpetxeetan ere giro ona nabari da erromesen artean, ez horrenbeste goizetan baina. Leku batzuetan nahiko errespetu falta sumatu genuen: argiak piztu, zarata atera…"

## Azkenean Santiagon

Santiagora iritsi zirenean egin zuten lehen gauza bizikletak lurrera botatzea izan zela aitortu digute. "Poza eta pena aldi berean eman zigun amaitzeak, iritsi gera eta orain zer? pentsatzen genuen. Jarraitzeko gogoz geratu ginen, baina pozik bizitako esperientziarekin"

## Berriz egiteko asmorik?

"Bai, baina hurrengoan oinez. Agian hurrengo Urte Santuan, hemendik 11 urtera".



# Udal Pleno Areto berria estreinatu zuten asteazkenean, hilaren 30ean

## Pleno aretoa, udaletxeko sarrera eta epaitegia berritu dituzte

Udaletxeko berrikuntza obrak direla-eta, azken hilabeteotako Osoko Bilkurak Kultur Etxeko hitzaldi gelan ospatu dira. Joan zen asteazkenean, hilaren 30ean, estreinatu zuten Pleno Areto berria. Arratsaldeko 19:00etan hasi zen Osoko Bilkura, eta lau gai eztabaidatu zituzten: 2004ko maiatzaren 28an eginiko bilerari dagokion Aktaren onarpena, Udaleko, Zaharren Egoitzako eta Kirol Patronatu Organismo Autonomoen 2003 Ekitaldiko Kontu Orokorren onarpena, 2004ko udal aurrekontuaren kredituen aldaketa espedientearen hasierako onarpena eta 2004 ekitaldirako Udaleko pertsonalaren enplegu baldintzak arautzen dituen erabakiaren onarpena. Aho batez onartu ziren gai guztiak.



### Udaletxeko berrikuntzak

Udaleko Pleno Aretoa berritzeaz gain, udaletxeko sarrera eta udal epaitegia ere berritu dituzte.

### Gipuzkoako Batzar Nagusia

Gaur, uztailak 2, Gipuzkoako Batzar Nagusia ospatu da Elgoibarren, azkenekoz 1981eko uztailaren 2an ospatu zen gure herrian.

Aurreskua dantzatuz egin zaie ongi etorria Gipuzkoako Diputatu eta Batzargileei, eta ondoren Udaletxeko Pleno Aretoan bildu dira. Guztira 51 lagun izan dira. Mahaia ondorengoek osatu dute: Leire Ereño lehendakaria (EAJ), J.M. Oruesagasti lehendakariordea (EAJ), Rafaela Romero (PSE-EE), Estanis Etxeberria (EAJ) eta J. Carlos Cano (PP). Hiru gai nagusi aztertu dituzte: Gipuzkoako Foru Aldundiaren 2004-2007 urteko inbertsio plana onartzea, Bergarako Zubillaga Doktorea eguneko zentroaren egoitza erosteko foru arauaren bozketa, eta datorren urteko Batzar Nagusia non ospatuko den erabakitzea. Batzarra bukatu ostean bertan bildutakoak, Belaustegi jatetxean egin dute bazkaria.

# Irailaren 12ra arte egongo dira zabalik Mintxetako igerilekuak

## Iazko denboraldian 16.000 lagun izan ziren Mintxetan



*Egunik jendetsuenean 1.180 lagun bildu ziren Mintxetako igerilekuetan.*

Joan zen ekainaren 15ean ireki zituzten Mintxetako igerilekuak, eta irailaren 12an itxiko dituzte. Astelehenetik igandera egongo dira zabalik, goizeko 9:00etatik iluntzeko 8:00ak arte. Iazko denboraldian 16.000 lagunek erabili zituzten Mintxetako igerilekuak. Guztira 313 denboraldiko bonu egin ziren, eta jende gehien bildu zen egunean 1.180 lagun izan ziren.

### Aurtengo berrikuntzak

Aurtengo denboraldirako aldagelak eta tabernatxo bat jartzeko asmoa zeukan Kirol Patronatuak, baina Ramon Mujikak Patronatuko zuzendariak azaldu digunez, proiektua atzeratu egin behar izan dute: "Futbol zelaiko obrak direla-eta, atzeratu egin behar izan ditugu igerilekuko berrikuntzak. Gainera, Osasun Sailak gure proiektuan aldaketa batzuk egiteko eskatu digu, beraz, berrikuntzek datorren urtera arte itxaron beharko dute".

Hala ere, badira aldaketa batzuk: neska eta mutilentzako dutxa eta aldagela probisionalak jarri dituzte, komunak, edari eta kafe makinak eta nahi duenak eguzkitakoa hartzeko aukera izango du. Sarreran fiantza bat eskatuko zaio, eta eguzkitakoa bueltatzen duenean, fiantza hori itzuli egingo zaio.

### Animazio programa

Atxutxiamaika Aisialdi Taldearekin elkarlanean, Kirol Patronatuak umeentzako animazio programa bat prestatu du. Uztaileko ostegunetan, arratsaldeko 16:00etatik 18:00etara tailer eta jolasak izango dira Mintxetako igerilekuetan. 3 eta 5 urte bitarteko haurrentzat alde batetik, eta 6 eta 11 urte bitartekoentzat bestetik. Guztira lau ostegun izango dira, eta igerilekuan dauden haur guztiek parte hartu ahal izango dute.

## San Pedro Eguna ospatu zuten auzotarrek ekainaren 29an

Ekainaren 28an hasi ziren San Pedro auzoko jaiak. San Pedro Egunean, ekainaren 29an, santuarekin prozesioa egin zuten auzotarrek Meza Nagusira sartu aurretik, eta ondoren bazkaria egin zuten. Eguraldi bikaina egin zuenez, jende dezentek hartu zuen parte prozesioan.

Asteburu honetan, oraindik izango dira ekitaldiak San Pedron: bihar, uztailak 3, Manu Alvarezen oroimenezko motokros proba izango da 16:00etan, eta gauean bertso afaria Andoni Egaña, A.Mari Peñagarikano eta Sebastian Lizasorekin. Igandean, berriz, herri kirolak izango dira nagusi. Goizean harri jasotzaileak eta ahari jokoak izango dira, eta arratsaldean idi demak.



## IMHko Heziketa Zikloetako ikasleek kurtso bukaerako diploma jaso dute



Goi-mailako Proiektu Mekanikoen Garapena, Mekanizazio Bidezko Produkzioa, Industri Ekipoen Mantenimentua eta Erdi-mailako Mekanizazioko Teknikoa ikasi duten ikasleek ikasketa amaierako diploma jaso zuten joan zen ekainaren 25ean. Jorge Arevalok, Eusko Jaurlaritzako Lanbide Heziketako Sailburuordeak, Miguel Angel Mujikak, Elgoibarko Alkate ordeak, Xabier Ortuetak, AFMko Zuzendari Ondokoak eta Joxean Egañak, IMHko Zuzendariak hartu zuten parte ekitaldian.

## 100 ume inguruk hartuko dute parte udaleku irekietan



Atxutxiamaika Aisialdi Taldeak antolatuta, joan zen astelehenean, ekainaren 28an hasi ziren udaleku irekiak, eta uztailaren 23ra arte luzatuko dira. Aurtengoan 100 ume inguru arituko dira udaleku irekiotan. 2 urteko umeetatik hasita, LH 2. mailara arteko ikasleek eman dute izena. Astelehenetik ostiralera, goizeko 9:30etik eguerdiko 12:30era, Herri Eskolan, Plaza Txikian, Kultur Etxeko Sotoan, eta Plaza Merkatuko lokal batean bilduko dira haurrak, eta besteak beste, eskulanak, jolasak, Mintxetako igerilekura irteera, ur jolasak eta txangoak



## Merkatu Plazako dendariek bi afari zozketatu dituzte

Hilabete honetan, bi lagunentzako bi afari zozketatu dituzte Merkatu plazako dendariek, eta Maria Urionabarrenetxea eta Anjel Alvarez izan dira irabazleak. Bakoitzak nahi duen bikotearekin, Ibai-Ondo jatetxean afaltzeko aukera izango du.

## Bertso Jolasa Udan

Gaz-T Aisialdi Taldeak eta Elgoibarko Udalak, uztailean Bertsozale Elkarteak Aubixan antolatzen duen Bertso Jolasa Udan programan parte hartzeko aukera luzatu nahi die herriko gazteei. 12 eta 14 urte bitarteko gazteentzako ekitaldiak, uztailaren 12tik 18ra ospatuko dira, eta 16 eta 18 urte bitarteko gazteentzat uztailaren 22tik 28ra. Egun bakoitzean ekitaldi bat izango da, eta norberak nahi duen ekintzetan parte hartu ahal izango du. Besteak beste, bertso afariak, txangoak, bertso tribiala, eta kantaldiak izango dira. Informazioa jasotzeko edota izena emateko deitu 943 741626 telefonora edo pasatu Elgoibarko Izarratik uztailaren 8a baino lehen. Ekitaldi batzuk doan izango dira, eta horietan ez dago izena eman beharrik.

### Donostian polemika sortu da Zurriolako parte bat nudistei eskaini nahi zaielako

# MINTXETAKO IGERILEKUETAN, EGON BEHARKO AL LITZATEKE NUDISMOA EGITEKO AUKERARIK?



## IRIS CEI

**35 urte, abokatua**

Jendearen aldetik eskaria badago, ipini dezatela, niri ez lidake trabarik egingo. Nudismoa praktikatu nahi dutenentzat leku bat jartzea ondo dago. Ez dakit lekurik dagoen, baina ahal bada egin dezatela.

## MIKEL DELGADO

**13 urte, ikaslea**

Niri lotsa ematen dit, baina nudistentzako gune bat jartzea ez litzaidake inportako. Modu naturalean hartu beharko genuke, baina Elgoibarren ez dut uste posible izango litzatekeenik.





## IRATXE ALONSO

**35 urte, mekanikoa**

Nire aldetik ez litzateke arazorik egongo, baina Elgoibarren jendea oso itxia da. Ez dut uste posible izango litzatekeenik. Gainera denok ezagunak izanik, ez litzateke jende gehiegi ausartuko.

## JESUS MARI MARTINEZ

**29 urte, dentista**

Niri ondo iruditzen zait, baina igerilekura sartzeagatik ordaindu egin behar dela kontuan izanik, jende askori ez litzaioke gustatuko. Hondartzan nudismoa praktikatzea desberdina da, ez baita sarrerarik ordaintzen.





## BELEN CORDON

**12 urte, ikaslea**

Ez. Nik ez nuke nudismoa praktikatuko, lotsa ematen dit, eta besteak biluzik ikustea ere ez litzaidake gustatuko. Egun bat nudistentzat bakarrik jartzea izan daiteke beste aukera bat.

## DORI ETXARRI

**57 urte, etxekoandrea**

Nudistek ere beraien eskubideak dituzte, eta besteak molestatzen ez dituzten bitartean, ondo iruditzen zait. Ikusi nahi ez duenak, ez dezala begiratu. Naturalagoak izan beharko genuke.



LARRAÑAGA
AUTOESKOLA
Tel: 943 74 10 11

IKASTARO TEORIKO INTENTSIBOAK EUSKARAZ eta GAZTELANIAZ.
ZIKLOMOTORREKO LIZENTZIA ASTEBETEAN. AZTERKETARIK GABE!
IZENA EMATEAN %10EKO BEHERAPENA

Gaindi ezazu motorraren teorikoa 16 urte bete aurretik eta autoaren azterketa teorikoa 18 urte bete aurretik!

Zatoz informazio eske!

# Txandakako ingeniaritza

## Goi Mailako Ikasketak egiteko aukera Elgoibartik irten gabe

Txandakako Ingeniaritza 1996. urtean jarri zuten martxan IMHn, orduko moduluei jarraipena emateko asmoz. Elgoibarko eta inguruko enpresen eskaria asetzeko langileak prestatzea zen helburua. Urte hauetan, emaitza oso onak eman ditu: 208 ikaslek burutu dituzte ikasketa hauek, 163 enpresekin elkarlanean. Ikasleen %90a ikasketak bukatzerako lanean hasten da. Gaurkoan Ignacio Muguerza Estartako Zuzendariarekin eta Jose Mari Seara Txandakako Ingeniaritza ikaslearekin hitz egin dugu beraien esperientzia gertutik ezagutzeko.



### Ignacio Muguerza

**"Txandakako Ingeniaritza lujo bat da Elgoibar bezalako herri txiki batentzat"**

**Zein da zure papera Txandakako ingeniaritzan?**
Enpresako tutorea naiz. Txandakako ingeniaritzan hiru parte nagusi daude: Eskola, ikaslea eta enpresa. Estartako tutorea naiz ni, IMH eta ikaslearekin harremanetan dagoen pertsona. Hiru alderdi hauek, hilean behin elkartzen gara, ikasleari gertuko jarraipena egiteko.

**Nola funtzionatzen du Txandakako Ingeniaritzak?**
Goizez lanera joaten da ikaslea eta arratsaldez eskolara. Ikasleek momentu gogorrak pasatzen dituzte, baina oso metodologia ona da, ikaslearentzat eta enpresarentzat. Hasieratik ikaslea ezagutu eta enpresan formatzeko aukera eskaintzen dizu, eta ikasleak, enpresa-mundua ikasten ari den bitartean ezagutzen du; eskolan ikasitakoa praktikan jartzen du.

**Zenbat urteko ikasketak dira?**
3 urteko ikasketak dira. Lehenengo momentutik ikaslea enpresa munduarekin harremanetan jartzen da, eta atzerrira joateko aukera ere izaten du. Ikasketa oso konpletoa da.

**Urte hauetako esperientzia, nola baloratzen duzu?**
Oso positiboa izan da. Txandakako Ingeniaritza lujo bat da Elgoibar bezalako herri txiki batentzat. Emaitza oso onak eskaini ditu. Hasieratik gustatu zitzaigun ideia, eta gure enpresatik pasatu diren ikasleekin oso esperientzia ona izan dugu.

**Zer esango zenieke txandakako ingeniaritza, ez dela benetako ingeniaritza esaten dutenei?**
Lehenengo probatu dezatela, eta emaitzak ikusitakoan hitz egiteko. Arrasate edo Bilboko ingeniaritzek izen hobeagoa dute, baina IMHko ingeniaritza oso ondo dago.

**Zein irteera dauzka karrera honek?**
Irteera asko dauzka. Ikasketa zabalak dira, ez da alor konkretu batean zentratzen, eta ikasleak lan desberdinak egin ditzake enpresan: zuzendari teknikoa, kalitate arduraduna, proiektu zuzendaria, gerentea…



### Jose Mari Seara

**"Ikasi eta lan egitearen ideiak bultzatu ninduen Ingeniaritza hau ikastera"**

**Zergatik erabaki zenuen Txandakako Ingeniaritza egitea?**
Praktikak eta teoria uztartzearen ideia asko gustatzen zitzaidalako erabaki nuen IMHra joatea.

**Institututik etorri zinen ala modulu bat egin zenuen lehenengo?**
Deliniazio modulu bat egin nuen lehenengo IMHn. Gero lanean egon nintzen bi urtez, eta ondoren Txandakako Ingeniaritza ikasten hasi nintzen. Hura zen momentua, banekien orduan ez banuen egiten, ez nuela sekula egingo.

**Espero zenuena aurkitu al duzu?**
Ingeniaritza berria da, eta hobetzeko gauzak daude, baina oso gustura ibili naiz. Lan munduarekin harremanetan zaude, eta hori oso garrantzitsua da.

**Atzerrian ere praktikak egiten dira. Nolako esperientzia izan da?**
Oso ona. Ni Frantzian egon nintzen. Esperientzia handia lortzen da eta hizkuntza eta kultura berri bat ezagutzeko aukerarik onena da.

**Zer esango zenieke, benetako ingeniaritza ez dela diotenei?**
Ez nago ados. Probatu gabe ezin da hori esan. Beharbada, klasean ez da beste ingeniaritzetan besteko materiarik ematen, baina benetako ingeniaritza da. Hemen enpresarekin harremanetan egoteak pisu handiagoa dauka.

**Zer izan da gehien gustatu zaizuna?**
Klasean egiten diren proiektuak. Lehenengo mailan hasten gara, eta gero, urtetik urtera puntuak gehitzen zaizkio proiektuari, eta hirugarren mailan proiektu oso serioa burutzen da. Enpresan praktikak egitea ere asko gustatu zait, ikasteko tokirik onena delako, eta atzerrira joatea ere asko gustatu zait.

**Ikasketak bukatutakoan, erraz aurkitu al zenuen lana?**
Bai, Estartan egin nituen praktikak, eta bertan jarraitu nuen. Duela bi hilabete Danobaten hasi nintzen. Enpresek beraien beharrak asetzeko hartzen dituzte ikasleak, formatu ondoren arazorik ez badago bertan gelditzen dira.

**Animatuko al zenuke jendea Txandakako Ingeniaritza ikastera?**
Bai, dudarik gabe. Erreminta Makinaren mundua gustatzen zaionarentzat ikasketarik egokienak dira. Elgoibar eta inguruan oso ondo baloratuta dago.

# MARTXOA

Atal honetan zuen seme-alaba jaioberriaren argazkia jartzea nahi izanez gero, deitu BARREN astekarira **943 74 41 12** telefonora edo bidali e-postaz **barren@topagunea.com** helbide elektronikora.

## EZKONTZAK

**Lourdes Ansola eta Santos Zubimendi,**
ekainak 11

**Alberto Fernandez eta Ainhoa Garate,**
ekainak 25

**Eugenio Caro eta Amaia Epelde,**
ekainak 25

## HILDAKOAK

**Juana Arbulu Azkarete,**
90 urte, ekainak 2

**Mari Trini Rey,**
54 urte, ekainak 3

**Justo Gutierrez,**
86 urte, ekainak 6

**Jesus Maria Mejuto Cid,**
32 urte, ekainak 13

**Luis Jauregi Ollokiegi,**
82 urte, ekainak 14

**Jose Luis Soraluce Lizundia,**
52 urte, ekainak 19

**Loreto Zubizarreta Ibaibarriaga,**
81 urte, ekainak 21

**Cristobal Lendinez,**
84 urte, ekainak 22

**Juana Arrate,**
92 urte, ekainak 24

## JAIOTAKOAK



**Asier Pais Martins,**
ekainak 2,
Jose Manuel eta Gorete



**Garazi Ines Avila,**
ekainak 5,
Luis eta Marian



**Pedro Otaegi Iranzo,**
ekainak 19,
Kastor eta Maria-Pilar

ETXEBERRIA
Hileta zerbitzua
OSOA eta 24 ORDUKOA
KUTXAK · TRASLADOAK ·KOROAK

NORBANAKOEI eta KONPAINIEI zuzenduriko zerbitzuak.
Donostia eta probintziako erietxe zentroetan ere bai.
Santa klara, 14 20 870 ELGOIBAR
**Tel.:** (Biltegia) 943 74 13 27 (Etxekoa) 943 74 01 17 - 74 16 56
(Mobila) 608 77 07 01

BARREN ASTEKARIA

# elkarrizketa

GEHIGARRIA · HILEKO ELKARRIZKETA · 2004.ko uztaila/XII. urtea/495. zkia



EUSKARA MINTZOAN ETA BIHOTZEAN. MARITXU LOIOLA EUSKARARI OSO LOTUA BIZI DA. BARNE BARNETIK MAITE DU EUSKARA. FRANKISMOAREN GARAIAN MAKINA BAT ALDIZ ZIGORTU ZUTEN ESKOLAN EUSKARAZ HITZ EGITEAGATIK, ETA ORDUANTXE IKASI ZUEN EUSKARA MAITATZEN. EUSKARAREKIKO SENTIMENDUA ETA MAITASUNA BEREHALA SUMATZEN DA BERE HITZETAN. ELGOIBARKO EUSKARA BATZORDEKO LANGILEA DUGU MARITXU, ETA HANTXE AURKITU DUGU BERE ITZULPEN LANETAN MURGILDUTA. URDURI ZEGOEN, BAINA HITZ EGITEN HASI BEZAIN PRONTO LASAITU DA, ETA BERE BIZITZAKO MAKINA BAT ISTORIO KONTATU DIZKIGU, EUSKARAZ, NOSKI.

## Maritxu Loiola

"San Pedroko eskolan ikasi nuen euskara maitatzen"

# Maritxu Loiola

## “Oraindik ere lan ha

*AUBIXA BASERRIAN JAIOA, ELGOIBARTARREN ARTEAN ASKI EZAGUNA DA MARITXU LOIOLA. UDALEKO EUSKARA BATZORDEKO LANGILEA, AUBIXAKO ARDURADUNA, ARRATE IRRATIKO ESATARIA... EZ DA ESKUAK GURUTZATURIK EGOTEKO EMAKUMEA. IRRIBARREA AHOAN DUELA HARTU GAITU. GAZTETAKO OROITZAPENEZ BERBA EGITEN HASI GARA. BASERRI MUNDUKO EMAKUMEA DA, GAUETAN PIKUPEAN IZARREI BEGIRA LO EGINDAKO EMAKUMEA. EUSKARA AITZAKIA HARTUTA JO DUGU MARITXURENGANA, ETA BERBALDI INTERESGARRIA IZAN DUGU BERAREKIN.*



**◗ Noiz eta non sortua zara, Maritxu?**

1948. urteko otsailaren 7an jaio nintzen Aubixa baserrian, eta bertan bizitzen jarraitzen dut. Ama eta Aubixako antolatzailearekin bizi naiz baserrian.

**◗ Non eta nola pasa zenuen haurtzaroa?**

Haurtzaroa baserrian pasatu nuen. 9 urte egin arte ez nintzen kalera jaitsi. Orduan ez zegoen biderik, eta San Pedrotik kalera astoarekin jaisteko bi ordu inguru behar izaten genituen. Jostunarengana jantziren bat egitera, edo ilea moztera besterik ez nintzen jaisten kalera. Orain dena errazagoa da, baina lehen ez zen hainbeste diru erabiltzen, eta erosten genuena askoz gehiago baloratzen genuen.

**◗ Nora joaten zinen eskolara?**

San Pedrora. Auzoko neska eta mutilak joaten ginen bertara. Gu egunez, eta baserrian geneuzkan morroiak gauez joaten ziren. 9 urterekin eskola graduatua atera nuen. Ondoren, doktrina ikasten hasi ginen Elgoibarren Don Jose parrokoarekin eta 11 urterekin jaunartzea egin genuen. Jaunartzea egiteko doktrina guztia buruz ikasi eta azterketa bat gainditu behar izaten genuen. Gogorra izaten zen.

**◗ Zer oroitzapen dituzu garai haietaz?**

Garai desberdina zen. Euskaraz hitz egitea debekatua zegoen, eta eskolan makina bat aldiz zigortu ninduten euskaraz hitz egiteagatik. Besoak gurutzatuta hormara begira pasatu nuen denbora ugari. Gure hizkuntza euskara zen, eta oso gogorra egiten zitzaigun gazteleraz hitz egitea. Araceli San Jose zen gure maistra, eta oso ondo betetzen zuen guk erdaraz hitz egiteko agindua.

**◗ Zigor haiek izan al zuten eraginik euskararekiko zure sentimenduetan?**

Bai, dudarik gabe. Nik ez nuen ulertzen nola zigortu zitekeen pertsona bat euskaraz hitz egiteagatik. Argi neukan, ahal nuenean, nire komunikatzeko tresna euskara izango zela. Zigor horiek euskararekiko sentimenduak indartu zizkidaten. San Pedroko eskolan ikasi nuen euskara maitatzen. Nik uste dut, garai hartan eskolan ibili ginen guztiok, gaur egun, ez dugula gazteleraz hitz egiten. Demaseko egurra eman ziguten.

# ...ndia egin behar da euskararen alde"

**◗ Gogoratzen al duzu zer izan nahi zenuen handitan?**
Baserrian egunerokoa bizi genuen, eta ez neukan inongo aspiraziorik. Baserri munduan bizitzeko asmoa neukan. Aberez inguratuta, naturarekin harremanetan bizitzea nahi nuen. Niretzako etxeko animaliak familiakoak ziren. Aitonarekin izarrak ikusi, eta inongo beldurrik eta lotsarik gabe bizi ginen. Ez nuen sekula pentsatzen nagusitan zer izango nintzen.

**◗ Zer ikasketa burutu zenituen?**
11 urterekin, jaunartzea egin ostean, San Pedron jarraitu nuen 15 urtera arte ikasten. Gero baserrian geratu nintzen, eta 25 urterekin, Bergaran Unibertsitaterako Sarrera froga egin nuen. Handik, Donostiako itzultzaile eskolan sartu nintzen, eta bi urte pasatu nituen bertan.

**◗ Euskararen inguruan lan egiten ezagutu zaitugu azken aldian, zer da euskara zuretzat?**
Ni neu naiz euskara. Euskararekiko ditudan sentimenduak guztiz benetakoak dira.

**◗ Uste al zenuen egunen baten euskaraz zigorrik gabe hitz egiteko aukera izango zenuela?**
Ez. Ez nuen uste jasan genuen egoera hura aldatuko zenik. Gaur egungo kriterioekin ezinezkoa da garai hartan bizi izan genuena ulertzea. Frankismoak gure sentimenduak indartu zituen.

**◗ Zein da zure zeregina Udalaren Euskara Sailean?**
Itzultzailea naiz. Udaleko dokumentu guztiak euskarara itzultzen ditut. Irakurtzea, idaztea eta hitz egitea asko gustatzen zait, eta gustura egiten dut nire lana. Ez dira gozatzeko testurik aproposenak, baina gustatzen zait nire lana.



## "ITZULPEN LANAK EGITEN DITU EUSKARA BATZORDEAN ETA ASKO GUSTATZEN ZAIT"

**◗ Nondik datorkizu zaletasun hori?**
Nire aita bertsolaria zen, eta igandetan, bazkal ostean Otañoren bertsoak abesten zituen. Hortik literatura eta poesia mundurako grina sortu zitzaidan, eta denbora libre apur bat daukadanean, irakurtzea gustatzen zait.

**◗ Oraindik lan asko al dago egiteko euskararen alde?**
Bai. Duela gutxi irakurri nuen Unescoren 2001eko atlasean, euskara desagertzeko hizkuntzen artean zegoela. Notizia tristea benetan. Gaur egun jende askok daki euskaraz hitz egiten, eta sekula baino hobeto aplikatu daiteke Artzeren esaldi famatu hura. Dakitenek hitz egiten ez dutelako galduko da euskara.

**◗ Zein dira aurkitzen dituzuen zailtasun ohikoenak?**
Euskaraz dakienak hitz egiten ez duela. Politikoek ere ez dute beharrezkotzat jotzen euskara jakitea, eta nire ustez, zenbait arlotan derrigorrezkoa izan beharko litzateke euskara jakin eta hitz egitea. Helburua, Euskal Herrian hizkuntza bakarra edukitzea izan beharko litzateke.

**◗ Lortuko al dugu noizbait euskararen egoera normalizatzea?**
Ez dakit. Momentu honetan ez dut ikusten euskara egon beharko litzatekeen tokian.

**◗ Euskalduna naiz eta harro nago?**
"Harro" hitzak badirudi besteen gainetik jartzen gaituela, eta hori ez zait gustatzen. Ni besteen parean nago, baina hori bai, euskalduna naiz.

**◗ Arrate Irratian esatari lanak ere egiten dituzu, ezta?**
Bai, astean behin. Azoka egunean sartzen naiz irratian, herriko berriak eta azokako prezioak kontatzera.

**◗ Noiztik zabiltza lan honetan?**
Duela 15 urte inguru hasi nintzen. Hemen herriko berri asko izaten ditugu, eta horiek kontatzea izaten da nire lana.

**Gustuko al duzu irratia?**
Bai. Konplejorik eta beldurrik gabe hasi nintzen, eta gaur egun izugarri gustatzen zait.

**Entzun al duzu zure burua irratitik?**
Bai, noizean behin entzun izan dut eta oso arraroa egiten zait. Gainera, neure buruari akatsak aurkitzen dizkiot, baina ez diot buelta gehiegirik ematen. Hurrengoan hobeto egiten saiatu, eta kitto!

**Irratiak badu bere berea den xarma, ezta?**
Bai. Irratian sarritan inprobisatzea tokatzen da. Berriak idazten dituzu, baina askotan idatzitako hori astuna eta hotza izaten da. Beraz, inprobisatu egin behar izaten da. Horretarako zeure buruarekin konfiantza handia izan, eta lotsarik ez edukitzea oso garrantzitsua da.

**Zer egiten duzu Aubixan?**
Aubixak bere lana egina dauka, eta gaur egun bide hori jarraitu besterik ez du egin behar. Gure eskaintza hobetzea da gure lana. Etxekotasuna eta bertara etortzen den jendea ondo sentiaraztea da nire eginbehar garrantzitsuena.



## "HERRIAK LAN ASKO EGIN DU AUBIXAREN ALDE, ETA ESKERRAK EMAN BEHARREN GAUDE"

**Gaur egun zertarako erabiltzen da Aubixa?**
Euskal girotze baserri bat da Aubixa. Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailarekin hitzarmen bat sinatu genuen 2000. urtean, eta ordutik, Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako ikasleak etortzen dira Aubixara urte osoan zehar.

**Lehen elgoibartarrak bakarrik joaten al ziren?**
Bai, Elgoibarko Ikastolako umeak. Ikastolarekin lotura handia izan dugu, eta daukagu oraindik. Herriak lan asko egin du Aubixaren alde, eta eskerrak eman beharrean gaude. Gu, beti ahalegintzen gara elgoibartarrei lehentasuna eskaintzen.

**Elgoibartar belaunaldi askoren oroimen kolektiboan dago Aubixa baserria. Jendea gogoratzen al da txikitan Aubixan egindako egonaldietaz?**
